# Xedapen Orokorrak

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 1014

102/1994 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Urkiolako Parke Naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onesten duena.

Urkiola aldeko natur balioa babesteko araubide berezia ezartzeko zegoen presak bidezkotu zuen alde hori parke naturaltzat jotzea abenduaren 29ko 275/1989 Dekretuaren bidez, aldez aurretik Natur Baliabideen Antolamendurako Plana egin eta onetsi gabe, guzti hori Naturguneen eta Basa-flora eta Faunaren Artapenari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legearen 15.2. atalean jasotako gaitasuna erabiliz.

Izapideak 275/1989 Dekretuaren 6.1. atalean eta gehigarrizko xedapenean agindutakoarekin bat etorriz hasita, eta 6.4. atalean aurrikusitako izapideak beteta, bidezko da Urkiolako Parke Naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana behin betiko onestea.

Ondorioz, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko otsailaren 22an egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Naturguneen eta Basa-flora eta Faunaren Artapenari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legearen II. idazpuruan eta Urkiolako Parke Naturalaren adierazpenari buruzko abenduaren 29ko 275/1989 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, Urkiolako Parke Naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana behin betiko onesten da.

Horretarako, dekretu honekin batera eta I eta II. eraskin gisa, hurrenez hurren, xedapen-zatia eta antolamendurako planoa argitaratzen dira.

*2. atala.–* Urkiolako Parke Naturaleko muga geografikoak, aurreko atalean aipatzen den antolamendurako planoan irudikaturikoak dira.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Honako dekretu hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, Abadiño, Amorebieta-Echano, Atxondo, Dima, Izurza, Mañaria eta Aramaioko udal mugarteak ukitzen dituzten eta lurralde eta inguru fisikoa antolatzeko diren tresnak, onetsitako planean ezarritako zehaztapenei egokituko zaizkie. Egokitzapen hori gertatu bitartean, planeko zehaztapenak lurralde edo inguru fisikoaren antolamendurako tresna horiei nagusituko zaizkie eta horrela aplikatuko dira.

INDARGABETZE XEDAPENA

Abenduaren 29ko 275/1989 Dekretuaren I. eraski-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### 1014

DECRETO 102/1994, de 22 de febrero, por el que se aprueba el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural de Urkiola.

La urgencia existente en el establecimiento de un régimen especial de protección de los valores naturales de la zona de Urkiola, justificó su declaración como Parque Natural por Decreto 275/1989, de 29 de Diciembre, sin la previa elaboración y aprobación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales, haciendo uso de la habilitación contenida en el artículo 15.2 de la Ley 4/1989, de 27 de marzo, de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y Fauna Silvestre.

Iniciada la tramitación de conformidad con lo ordenado en el artículo 6.1 y disposición adicional del Decreto 275/1989, y cumplidos los trámites previstos en su artículo 6.4, procede la aprobación definitiva del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural de Urkiola.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión de 22 de febrero de 1994,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Se aprueba definitivamente el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural de Urkiola, de acuerdo con lo establecido en el Título II de la Ley 4/1989, de 27 de marzo, de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres y en el Decreto 275/1989, de 29 de diciembre, de declaración del Parque Natural de Urkiola.

A tal efecto se publican, respectivamente, como anexos I y II al presente Decreto, la parte dispositiva y el Plano de Ordenación.

*Artículo 2.–* Los límites geográficos del Parque Natural de Urkiola son los que se representan en el Plano de Ordenación a que se refiere el artículo anterior.

DISPOSICION TRANSITORIA

En el plazo de un año a partir de la entrada en vigor del presente Decreto, se adaptarán los instrumentos de ordenación territorial o física que afecten a los Términos Municipales de Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Dima, Izurza, Mañaria y Aramaio a las determinaciones establecidas en el Plan aprobado. Entre tanto dicha adaptación no tenga lugar, sus determinaciones se aplicarán, en todo caso, prevaleciendo sobre dichos instrumentos de ordenación territorial o física.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogados los límites geográficos del Parque

nean irudikatu eta II. eraskinean azaltzen diren Urkiolako Parke Naturaleko muga geografikoak indargabetu egiten dira.

AZKEN XEDAPENA

Honako dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko otsailak 22.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

## I. ERASKINA

### URKIOLAKO PARKE NATURALEKO NATUR BALIABIDEEN ANTOLAMENDURAKO PLANA

Arauteriaren egitura.

I. IDAZPURUA. XEDAPEN OROKORRAK.

*1. atala.*– Antolamendurako Planaren izaera.
*2. atala.*– Antolamendurako Planaren helburu orokorrak.
*3. atala.*– Inguruko biztanleen integrazioa.
*4. atala.*– Planaren ondoreak.
*5. atala.*– Aplikazio eremua.
*6. atala.*– Indarraldia eta plana berrikusteko baldintzak.
*7. atala.*– Mugak eta desjabetzapena.
*8. atala.*– Organo kudeatzailea.

II. IDAZPURUA. ANTOLAMENDUA ETA ARAUTERIA

I. ATALBURUA. ERABILERAK ETA IHARDUERAK ANTOLATZEKO ETA BALIABIDEAK BABESTEKO HELBURU, GIDALERRO ETA ARAUAK

A SEKZIOA. ERABILERAK ETA IHARDUERAK ANTOLATZEKO HELBURU, GIDALERRO ETA ARAUAK

*9. atala.*– Nekazaritza eta abeltzantza.
*10. atala.*– Basogintza.
*11. atala.*– Ehiza eta arrantza iharduerak.
*12. atala.*– Jolas iharduerak.
*13. atala.*– Zientzi eta ikerkuntza iharduerak.
*14. atala.*– Hezkuntza iharduerak.
*15. atala.*– Eraikuntza eta azpiegituretako iharduerak.
*16. atala.*– Bestelako erabilera eta iharduerak.

B SEKZIOA. BALIABIDEAK BABESTEKO HELBURU, GIDALERRO ETA ARAU OROKORRAK

*17. atala.*– Lurzoruaren babesa.
*18. atala.*– Baliabide hidrologikoen babesa.
*19. atala.*– Flora eta faunaren babesa.

Natural de Urkiola que se representan en el Anexo I y se describen en el Anexo II del Decreto 275/1989 de 29 de diciembre.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de febrero de 1994.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE

## ANEXO I

### PLAN DE ORDENACION DE LOS RECURSOS NATURALES DEL PARQUE NATURAL DE URKIOLA

Estructura de la normativa

TITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Naturaleza del Plan de Ordenación.
*Artículo 2.*– Objetivos generales del Plan de Ordenación.
*Artículo 3.*– Integración de la población local.
*Artículo 4.*– Efectos del Plan.
*Artículo 5.*– Ambito de aplicación.
*Artículo 6.*– Vigencia y condicionantes de revisión.
*Artículo 7.*– Limitaciones y expropiación.
*Artículo 8.*– Organo gestor.

TITULO II. ORDENACION Y NORMATIVA

CAPITULO I. OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS DE REGULACION DE USOS Y ACTIVIDADES Y PARA LA PROTECCION DE LOS RECURSOS

SECCION A. OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS DE REGULACION DE USOS Y ACTIVIDADES

*Artículo 9.*– Uso agrícola y ganadero.
*Artículo 10.*– Uso forestal.
*Artículo 11.*– Actividades cinegéticas y piscícolas.
*Artículo 12.*– Actividades recreativas.
*Artículo 13.*– Actividades científicas y de investigación.
*Artículo 14.*– Actividades educativas.
*Artículo 15.*– Actividades constructivas e infraestructuras.
*Artículo 16.*– Otros usos y actividades.

SECCION B. OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMATIVA GENERAL PARA LA PROTECCION DE LOS RECURSOS

*Artículo 17.*– Protección del suelo.
*Artículo 18.*– Protección de los recursos hidrológicos.
*Artículo 19.*– Protección de la Flora y Fauna.

*20. atala.*– Paisaiaren babesa.
*21. atala.*– Baliabide espeleologikoen babesa.

II. ATALBURUA. ERABILERAK ETA IHARDUERAK ALDEKA ANTOLATZEKO HELBURU, GIDALERRO ETA ARAUAK

*22. atala.*– Babes bereziko aldea.
*23. atala.*– Harrera- eta igarotze-aldea.
*24. atala.*– Basogintza eta abeltzantzarako aldea.
*25. atala.*– Abeltzantza berrezartzeko aldea.

III. ATALBURUA. INGURUGIROKO ERAGINAREN EBALUAZIOAREN MENPEKO IHARDUERAK

*26. atala.*– Ingurugiroko eraginaren ebaluazioaren menpeko iharduerak.

I. IDAZPURUA. XEDAPEN OROKORRAK

*1. atala.*– Antolamendurako Planaren izaera.

Honako plan hau Urkiolako Parke Naturaleko natur baliabideen plangintza eta kudeaketarako tresna da, Naturguneen eta Basa-flora eta Faunaren Artapenerako 4/1989 Legean aurrikusitakoari dagokionez.

*2. atala.*– Antolamendurako Planaren helburu orokorrak.

1.– Natur baliabide eta ekosistemen, landa-inguruko arkitektura ondarearen eta biztanguneetako berezitasunen artapen-egoera zehaztu eta adieraztea.

2.– Tradiziozko ekoizpen-iharduerak eta erabilera berriak suspertzea, ingurune fisikoa zaindu eta babesteko bide eginkor gisa.

3.– Adierazitako beharkizunekin bateragarriak diren ekonomi eta gizarte iharduerak, publikoak zein pribatuak, arautuko dituzten sektorekako politikak orientatzeko irizpideak azaltzea.

4.– Artapen-egoera dela eta ezarri behar diren mugapenak zehatea.

5.– Natur baliabideak artatu, berreskuratu eta hobetzeko neurrien aplikazioa sustatzea.

6.– Aldeaz kanpotik datozenak bideratu eta antolatzea.

*3. atala.*– Inguruko biztanleen integrazioa.

1.– Plan honek inguruko biztanleak integratzeko duen asmoarekin bat etorriz, Natur Baliabideen Antolamendurako Planari eta etorkizunean izango den Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzaileari buruzko etengabeko informazioa izateko sistema eratuko du parkeak.

2.– Inguruko biztanleak parkearen helburu eta dinamikan integratzeko ahaleginak egingo dira, inguruko sozioekonomiaren beharrak aintzat hartuz eta nekazaritza-ustiategien arduradunei, parkearekiko harremanekin loturiko arazoetan eta sektoreko problematika orokorrean, aholkamendua eskaintzeko aukera emango duten informazio-bideak ezarriz.

*Artículo 20.*– Protección del paisaje.
*Artículo 21.*– Protección de los recursos espeleológicos

CAPITULO II. OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS DE REGULACION DE USOS Y ACTIVIDADES POR ZONAS

*Artículo 22.*– Zona de especial protección.
*Artículo 23.*– Zona de recepción y transito.
*Artículo 24.*– Zona forestal - ganadera.
*Artículo 25.*– Zona de restauración ganadera.

CAPITULO III. ACTIVIDADES SOMETIDAS A EVALUACION DE IMPACTO AMBIENTAL

*Artículo 26.*– Actividades sometidas a Evaluación de Impacto Ambiental.

TITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Naturaleza del Plan de Ordenación.

El presente Plan es el instrumento de planificación y gestión de los recursos naturales del Parque Natural de Urkiola, a los efectos previstos en la Ley 4/1989 de Conservación de los Espacios Naturales y de la flora y fauna silvestres.

*Artículo 2.*– Objetivos generales del Plan de Ordenación.

1.– Definir y señalar el estado de conservación de los recursos naturales y ecosistemas, el patrimonio arquitectónico rural y las peculiaridades de sus núcleos de población.

2.– Fomentar las actividades productivas tradicionales y los nuevos usos como medio de preservación y protección activa del medio físico.

3.– Formular criterios orientadores de las políticas sectoriales y ordenadoras de las actividades económicas y sociales, públicas y privadas, que sean compatibles con las exigencias señaladas.

4.– Determinar las limitaciones que deban establecerse a la vista del estado de conservación.

5.– Promover la aplicación de medidas de conservación, restauración y mejora de los recursos naturales.

6.– Canalizar y ordenar la afluencia externa de la zona.

*Artículo 3.*– Integración de la población local.

1.– En consonancia con la vocación de integración de la población local que este Plan se ha propuesto, el Parque habilitará un sistema de información permanente sobre el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y el futuro Plan Rector de Uso y Gestión.

2.– Se buscará la integración de la población local en los objetivos y dinámica del Parque, asumiendo las necesidades de la socioeconomía local y estableciendo canales de información que permitan asesorar a los responsables de las explotaciones agrarias en los problemas ligados a su relación con el Parque, así como en la problemática general del sector.

*4. atala.*– Planaren ondoreak.

Natur Baliabideen Antolamendurako Plana behin betiko onesteak honako ondore hauek izango ditu:

1.– Publizitatea eta, berarekin batera, edozein hiritarrek dokumentazioa kontsultatzeko izango duen eskubidea, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak zehaztuko dituen lekuetan edonoren esku eta behar bezala legeztaturik egongo den inprimakian kontsultatzekoa alegia.

2.– Nahitaezkotasuna: Urkiolako Parke Naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Planak araututako gaiak, nahitaezkoak eta betearaztekoak izateaz gain, muga izango dira plan orokorretarako eta sorospidezko arauetarako eta, oro har, lurralde edo ingurune fisikoaren antolamendurako beste edozein tresnatarako, zeinen zehaztapenek ezin aldaraz baititzakete lehen adierazitako xedapenak.

Edukin arauemaileari dagokionez, lurralde edo ingurune fisikoaren antolamendurako tresnak, Natur Baliabideen Antolamendurako Planarekin bat ez badatoz, plan horri egokitu beharko zaizkio. Edonola ere, egokitzapen hori gauzatu arte, planaren zehaztapenak besteen gainetik egongo dira.

3.– Antolamendurako planaren edukinak orientazio izaera du gainerako edozein sektorekako iharduketa, plan edo egitaraurekiko; beraz, antolamendurako planaren zehaztapenak ordezkotzaz aplikatuko dira.

*5. atala.*– Aplikazio eremua.

Plan honek ukitzen duen geografi aldea, antolamendurako planoan mugatu eta irudikaturikoa da.

*6. atala.*– Indarraldia eta plana berrikusteko baldintzak.

Natur Baliabideen Antolamendurako Plana ondoko balizko hauetan aldarazi beharko da:

1.– Irizpide eta helburu orokorren aldaketa.

2.– Lurralde-eremuaren zabalkuntza.

3.– Babestutako balioen zainketari buruzko eskakizun handiagoak.

Abenduaren 29ko 275/1989 Dekretuaren 6.4. atalean ezarritako prozedurara makurtu beharko da planaren aldarazpena.

*7. atala.*– Mugak eta desjabetzapena.

Jabetza pribatua edo legebidezko ondare eskubide zein interesak kendu edo mugatzeko, Natur Baliabideen Antolamendurako Planean eta natur parkearen eremuko Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailean ezarritako murrizketak edo mugapenak indarrean jartzeko xedeaz, indarreko legerian ezarritakoaren araberako kalteordainak emango dira.

*8. atala.*– Organo kudeatzailea.

1.– Natur Baliabideen Antolamendurako Plan honek aipatzen duen eta parkearen kudeaketaz arduratuko den organoa, Urkiolako Natur Parkearen adierazpenari buruzko abenduaren 20ko 275/1989 Dekretuko 7. atalean definiturikoa izango da.

*Artículo 4.*– Efectos del Plan.

La aprobación definitiva del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales produce los siguientes efectos:

1.– Publicidad, que lleva aparejada el derecho de cualquier ciudadano a consultar la documentación, en ejemplar debidamente legalizado, que a tal efecto estará a disposición del público en los locales que el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco determine.

2.– Obligatoriedad: las regulaciones contenidas en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural de Urkiola serán obligatorias y ejecutivas y constituyen un límite para los Planes Generales y Normas Subsidiarias y en general para cualesquiera otros instrumentos de ordenación territorial o física, cuyas determinaciones no podrán alterar o modificar dichas disposiciones.

Los instrumentos de ordenación territorial o física existentes que resulten contradictorios, en su contenido normativo, con el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales deberán adaptarse a éste. Entre tanto dicha adaptación no tenga lugar, las determinaciones del plan se aplicarán, en todo caso, prevaleciendo sobre aquellas.

3.– El contenido del Plan de Ordenación tiene carácter indicativo respecto de cualesquiera otras actuaciones, planes o programas sectoriales y por lo tanto sus determinaciones se aplicarán subsidiariamente.

*Artículo 5.*– Ambito de aplicación.

El área geográfica a que afecta el presente Plan es la delimitada y representada en el correspondiente Plano de Ordenación.

*Artículo 6.*– Vigencia y condicionantes de revisión.

El Plan de Ordenación de los Recursos Naturales deberá ser modificado en los siguientes supuestos:

1.– Alteración de los criterios y objetivos generales.

2.– Ampliación del ámbito territorial.

3.– Mayores exigencias en cuanto a la preservación de los valores protegidos.

La modificación del Plan deberá someterse al procedimiento establecido en el artículo 6.4 del Decreto 275/1989, de 29 de Diciembre.

*Artículo 7.*– Limitaciones y expropiación.

La privación o la limitación singular de la propiedad privada o de los derechos e intereses patrimoniales legítimos, con el fin de poner en vigor las restricciones o limitaciones impuestas en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y en el Plan Rector de Uso y Gestión en el ámbito del Parque Natural, serán objeto de indemnización de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente.

*Artículo 8.*– Organo gestor.

1.– El Organo Responsable de la Gestión del Parque, al que se refiere este Plan de Ordenación de los Recursos Naturales, será el definido en el art. 7 del Decreto 275/1989, de 20 de diciembre, de declaración del Parque Natural de Urkiola.

2.– Parkearen kudeaketaz arduratuko den organoak, bere eginkizunen burtzapenean, antolamendurako plan honetan eta Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailean biltzen diren gidalerro eta arauak bete daitezen jagongo du.

3.– Parkearen kudeaketaz arduratuko den organoak, dagozkion eginkizunen burutzapenean, legezkotasun printzipioaren menpean ihardungo du, administrazio iharduera oro har eraentzen duten arau eta printzipioetara makurturik. Edozein iharduketa gauzatzean, nolanahi ere, zioak agertarazi beharko ditu.

## II. IDAZPURUA. ANTOLAMENDUA ETA ARAUTERIA

### I. ATALBURUA. ERABILERAK ETA IHARDUERAK ANTOLATZEKO ETA BALIABIDEAK BABESTEKO HELBURU, GIDALERRO ETA ARAUAK

#### A SEKZIOA. ERABILERAK ETA IHARDUERAK ANTOLATZEKO HELBURU, GIDALERRO ETA ARAUAK

*9. atala.*– Nekazaritza eta abeltzantza.

A. Helburuak.

1.– Urkiolako Parke Naturaleko tradiziozko iharduerak gorde eta garatzeko behar diren neurriak sustatzea, eta era horretara kultur eta natur balioen artapena laguntzea.

2.– Egungo ekoizpen-sistema hobetzea, errentagarritasun ekonomiko handiagoa eta kalitate handiagoko produktuak lortzeko.

B. Gidalerroak.

1.– Urkiolako Parke Naturalaren barruko larreetan arrazoizko abeltzantza suspertuko da.

2.– Parkearen aldean erregimen estentsiboko artzantzarekin zerikusia duten alderdi guztiak behar bezala antolatuko dira, artzantzarako aldeen ekoizkortasuna hobetzera jotzen duten egikera agronomikoak aplikatuz, zein oinarrituko baitira larreak sortu eta hobetzeko teknika berrietan, baita larreen aprobetxamenduan ere, bazka eta abereen erabilera egokiaren bidez. Horrek, bestetik, planteatzen diren beharrizanei eta inguruko ezaugarriei egokituriko azpiegituren zuzkidura exigituko du.

3.– Parke Naturaleko kalitate oneko produktuen ekoizpenerako pizgarriak emango dira.

4.– Baliabideen baso- eta abeltzantza-erabilera mistoa bultzatuko da, behar diren ikerketa-lerroak sortuz eta basoen jabeen eta abeltzainen arteko akordioak sustatuz.

C. Arauak.

1.– Egonaldiak, aldeak eta abereen zama parkeko baliagarritasun eta artapen-helburuen arabera mugatuko dira. Abereen zama gutxitu behar izanez gero, bazka-larreetarako tradiziozko eskubideen jabeei emango zaie lehentasuna, eta horien artean dedikazio nagusiko abeltzainek izango dute lehentasuna.

2.– En su actuación, el Organo Responsable de la Gestión del Parque velará por el cumplimiento de los objetivos, directrices y normas contenidas en este Plan de Ordenación y en el Plan Rector de Uso y Gestión.

3.– En el ejercicio de las funciones que le corresponde, el Organo responsable de la gestión del Parque actuará bajo el principio de legalidad con sometimiento a las normas y principios que rigen con carácter general la actividad administrativa. Sus actuaciones serán, en todo caso, motivadas.

## TITULO II. ORDENACION Y NORMATIVA

### CAPITULO I . OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS DE REGULACION DE USOS Y ACTIVIDADES Y PARA LA PROTECCION DE LOS RECURSOS

#### SECCION A. OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS DE REGULACION DE USOS Y ACTIVIDADES

*Artículo 9.*– Uso agrícola y ganadero.

A. Objetivos.

1.– Promocionar las medidas necesarias para el mantenimiento y desarrollo de las actividades tradicionales en el Parque Natural de Urkiola, colaborando de este modo en la conservación de los valores culturales y naturales.

2.– Mejorar los actuales sistemas productivos para lograr una mayor rentabilidad económica y productos de mayor calidad.

B. Directrices.

1.– La utilización ganadera racional de los pastizales incluidos en el Parque Natural de Urkiola será fomentada.

2.– Se procederá a una correcta ordenación de todos los aspectos relacionados con el pastoreo en régimen extensivo en la zona del Parque, mediante la aplicación de prácticas agronómicas tendentes a la mejora de la productividad de las áreas destinadas al pastoreo y que se basarán en nuevas técnicas de creación y mejora de los pastizales, así como su aprovechamiento mediante un adecuado manejo del pasto y el ganado. Ello exigirá, asimismo, una dotación de infraestructura ajustada a las necesidades planteadas y características del entorno.

3.– Se incentivará la producción de productos de calidad del propio Parque Natural.

4.– Se favorecerá la utilización mixta forestal-ganadera de los recursos, creando las líneas de investigación necesarias y promoviendo acuerdos entre los propietarios forestales y ganaderos.

C. Normas.

1.– Se delimitarán los periodos de estancia, las zonas y la carga ganadera a las disponibilidades del Parque y a sus objetivos de conservación. En caso que se deba reducir la carga ganadera existente se dará prioridad a los titulares de derechos tradicionales de pastos y entre éstos tendrán preferencia los ganaderos con dedicación principal.

2.– Parke naturaleko larreak erabiltzen dituzten abereek, aplikatu beharreko sanitate-arauak bete beharko dituzte.

3.– Parke naturaleko larreak erabiltzen dituzten abereen erregistroa egingo da. Bazkatzeko baimena duten abereei parkearen kudeaketaz arduratuko den organoak emandako seinalea jarriko zaie, zaingoak identifika ditzan. Baimen hori ez duen aberea abandonatutzat hartuko da, idarrean dagoen legerian aurrikusitakoari dagokionez.

4.– Larre berriak sortzean, bertoko espezieetako zuhaitzen oinak errespetatuko dira, eta ibarretan edo bestelako alde ahuletan hostozabalen zuhaizti txikiak tartekatuko dira, zeinek gutxienez azaleraren %5 beteko baitute.

4.1.– Lurraldearen ezaugarrien araberako zio-txostenik eta parkearen kudeaketarako organo arduradunaren baimenik gabe, ezin izango da larre berririk egin %30etik gorako maldetan.

5.– Suaren erabilera estentsiboa debekatuko da. Hondakinak pilatan metatu ondoren eta organo eskudunaren beren beregiko baimena eduki ondoren bakarrik erabili ahal izango da sua, eta egun berean, hain zuzen. Nahitaezkoa izango da suteen kontrako gordeindar baten jagotza, eta suak guztiz itzalita egon beharko du ilundu baino ordubete lehenago.

6.– Abereak gobernatzearen ondoriozko hondakinen isurketa arautuko da, bereziki zoosanitate-sendabideetan ekoitzirikoena. Parkearen kudeaketarako organo arduradunak, abeltzainekin ados, hondakinok ateratzeko behar diren neurriak sustatuko ditu.

7.– Parkearen kudeaketarako organo arduradunak ahuntz-aziendaren zaintza baimendu ahal izango du, lurren jabeekin ados jarri ondoren. Baimen horretan, abeltzainak errespetatu beharko dituen lekuak, datak eta kontrol-bideak adieraziko dira.

7.1.– Aipatutako espeziekoak diren eta kontrolik gabe dauden abereak abandonatutzat hartuko dira.

7.2.– Jabe edo arduraduna abereen ondoan zaindari eta etengabe ez dagoenean, azienda kontrolik gabe dagoela ulertuko da.

*10. atala.–* Basogintza.

A. Helburuak.

1.– Urkiolan egun dagoen zuhaitz-azalerari eustea, basodietatik era guztietako onurak lortu baitaitezke.

2.– Bertoko basodien hobekuntza eta artapena sustatzea, basoen taiuera ona, ongizatea eta iraunkortasuna bermatuz.

3.– Kokapenagatik eta bestelako erabileretarako egokiak ez izateagatik, gomendagarria den aldeetan landaretza klimazikoranzko eboluzio gero eta garbiagoa sustatzea. Halaber, degradatutako aldeen berreskurake-ta sustatzea.

4.– Parkearen landare-sanitatezko egoera ona jagotea. Izurriteak eta baso-gaisotasunak sendabide egokien

2.– El ganado que utilice los pastizales del Parque Natural deberá cumplir las normas sanitarias que les sean de aplicación.

3.– Se procederá a la creación de un registro del ganado que utiliza los pastizales del Parque Natural. El ganado autorizado a pastar será dotado de una señal que aportará el Organo Responsable de la Gestión del Parque, para su identificación por la guardería. El que carezca de dicha autorización se considerará abandonado, a los efectos prevenidos en la legislación vigente.

4.– En la creación de nuevos pastizales se respetarán los pies de especies arbóreas autóctonas, intercalando pequeños bosquetes de frondosas en vaguadas u otras zonas frágiles, que supongan al menos un 5% de la superficie.

4.1.– Salvo informe motivado en función de las características del terreno y autorización expresa del Organo Responsable de la Gestión del Parque, no se podrán crear nuevos pastizales en pendientes superiores al 30%.

5.– Se prohibe la utilización extensiva del fuego. Se permite únicamente su empleo una vez apilados los desperdicios en montones y después de contar con autorización expresa del órgano competente en el mismo día. Será obligatoria la vigilancia de un retén contra incendios, debiendo quedar el fuego completamente extinguido una hora antes de anochecer.

6.– Se regulará el vertido de los residuos resultantes del manejo del ganado, especialmente los procedentes de los tratamientos zoosanitarios. El Organo Responsable de la Gestión del Parque promoverá, de acuerdo con los ganaderos, las medidas necesarias para su evacuación.

7.– El Organo Responsable de la Gestión del Parque podrá autorizar el pastoreo del ganado caprino, de acuerdo con el propietario de los terrenos. En dicha autorización se señalarán los lugares, fechas y mecanismos de control que deberá cumplir el ganadero.

7.1.– Los animales de la citada especie que se encuentren sin control se considerarán abandonados.

7.2.– Se entenderá que el ganado está sin control cuando el dueño o encargado del mismo no se encuentre permanentemente junto al ganado al cuidado del mismo.

*Artículo 10.–* Uso forestal.

A. Objetivos.

1.– Mantener la actual superficie arbolada de Urkiola, dados los beneficios de todo tipo que de las masas arboladas pueden obtenerse.

2.– Promover la mejora y conservación de las masas autócotonas, asegurando su buena constitución, prosperidad y persistencia.

3.– Promover la evolución progresiva hacia la vegetación climácica en las áreas en que resulte aconsejable por su localización y la falta de adecuación para otros usos. Promover asimismo la restauración de las zonas degradadas.

4.– Velar por el buen estado fitosanitario del Parque. Controlar las plagas y enfermedades forestales mediante

bitartez kontrolatzea, eta pertsonengan edo ingurugiroan eragin kaltegarririk izan ez dezaten arduratzea.

5.– Pinukideen ekoizpenezko basoketak, iharduera hori burutzeko azalera nahikoa duten eta iharduera horrek eragin nabarmenik ez duen aldeetara mugatuko dira. Natur baliabideei babes nahikoa bermatzen dieten metodo eta teknikak erabiltzea (bereziki, higadura prozesuak ekiditea).

6.– Aurreko beharkizunak betetzen dituzten ekoizpenezko basoketen errentagarritasunaren igoera sustatzea, landaketa berrien ezarketa baino areago.

7.– Basoko suteen aurrearreta, sumaketa eta itzalketarako behar diren neurriak hartzea.

B. Gidalerroak.

1.– Kudeaketa plan teknikoen burutzapena sustatzea, baso publikoetan zein norbanakoen mendietan.

2.– Urkiolako basoen jabeak elkar daitezen sustatzea.

3.– Baso-sektorearen barruan oreka egokia erraztea, baita sektore horren eta abeltzantzaren artekoa ere.

4.– Baso-ingurua hobetzeko gaiei buruzko ikerketa lerro bereziak sortuko dira: baso-izurriteen kontrako burruka biologikoa, gaisotasun eta kalte abiotikoen sumaketa eta haien kontrako burruka, baso-txirpien eta mindegien sorketa, makineria arinaren erabilera, eta abar.

5.– Basabideen kopurua eta egikera, parkea jagoteko eta baso-lanak burutzeko dauden benetako beharrizanei egokituko zaizkie. Beharrezkoak ez direnak edo gaizki egindakoak ezabatuko dira eta arreta bereziaz zainduko dira gainerakoak.

6.– Bertoko landaretza errespetatuko da, batez ere ibar eta urbazterretan. Hortaz, ebakitzeko baimenak bereziki murriztuak izango dira urbazterreko basoen kasuan.

7.– Baso-ustiategietan, ingurunean eragin txikia duten tekniken erabilera sustatuko da, hala nola ebaketaren hondarrak mekanikoki suntsitzeko makineriaren erabilera ere.

8.– EKPEk, parkearen barruan kokatutako lurretan egin beharreko oihantzantza eta birbasoketa lanetarako dirulaguntza-erregimenaren espezialitateak arautuko ditu, jabeak mendiak birbasotzera eta egoera onean gordetzera bultzatzeko xedeaz.

9.– Basodiak oihantzantza eta artzantzarako erabil daitezen bultzatuko da, beti ere horrek zuhaitzen birsorketari kalterik ekartzen ez dionean.

10.– Hostozabalen behe-basoak hostozabalen baso garai bilakatzera jo beharko da.

11.– Erretzeko arrisku handiko landaretzak betetako alde handietan tartekaturik, errekortasun urriko landare-erakuntzak egon daitezen bultzatuko da.

12.– Parkearen Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzaileak basodietan iharduteko eta basodiak hobetzeko neurriak zehaztuko ditu.

tratamientos adecuados y que no produzcan efectos perjudiciales sobre las personas o el medio ambiente.

5.– Limitar las repoblaciones productivas de coníferas a las zonas con suficiente capacidad para realizar tal actividad y donde ésta no produzca impactos relevantes. Emplear en cualquier caso métodos y técnicas que garanticen una protección suficiente a los recursos naturales (evitar especialmente los procesos erosivos).

6.– Promover el aumento de rentabilidad de las repoblaciones productivas que cumplan los requisitos anteriores, más que la instauración de nuevas plantaciones.

7.– Adoptar las medidas precisas de prevención, detección y combate de los incendios forestales.

B. Directrices.

1.– Fomentar la realización de Planes Técnicos de Gestión, tanto en los montes públicos como en los pertenecientes a particulares.

2.– Promocionar la agrupación de propietarios forestales de Urkiola.

3.– Facilitar el adecuado equilibrio dentro del sector forestal, así como entre éste y el sector ganadero.

4.– Se crearán líneas de investigación específicas sobre temas de mejora del medio forestal: lucha biológica contra plagas forestales, detección y combate de enfermedades y daños abióticos, creación de viveros forestales y bancos de semillas, empleo de maquinaria ligera, etc.

5.– Se procederá a la adecuación del número y modo de construcción de las vías forestales a las necesidades reales de vigilancia y realización de trabajos forestales. Se eliminarán las innecesarias o mal construidas y se prestará especial atención al mantenimiento de las restantes.

6.– Se respetará la vegetación autóctona, especialmente en vaguadas y riberas. Para ello, la autorización de corta deberá ser particularmente restrictiva en el caso de los bosques de ribera.

7.– Se fomentará el empleo en las explotaciones forestales de técnicas poco impactantes sobre el medio, así como de maquinaria destinada a la destrucción mecánica de restos de corta.

8.– El P.R.U.G. regulará las especialidades del régimen de subvención para las tareas selvícolas y de repoblación a realizar en terrenos situados en el interior del Parque, con el fin de alentar a los propietarios a repoblar sus montes y a conservarlos en buen estado.

9.– Se potenciará el aprovechamiento silvopastoral de las masas arboladas, siempre que ello no suponga daños para la regeneración arbórea.

10.– Se deberá tender hacia la transformación de las montes bajos de frondosas a montes altos de frondosas.

11.– Se fomentará la existencia de formaciones vegetales de baja combustibilidad intercaladas en las grandes áreas ocupadas por vegetación de alto riesgo.

12.– El Plan Rector de Uso y Gestión del Parque definirá las medidas de actuación y mejora de las masas forestales.

13.– Baso-ustiategietan paisaiarekiko ardurak suspertuko dira.

13.1.– Ebaki edo birbasotu behar diren aldeen mugetan tankera geometrikoegiak ekiditea, lerro zuzenak ahal den neurrian baztertuko direlarik. Lurraldearen egitura kontutan hartuta eta paisaiaren taiueran oinarrituta, lerro etenak bultzatu beharko dira.

13.2.– Maila-kurben paraleloak edo perpendikularrak diren mugak baztertzea aholkatzen da, batez ere oso luzeak baldin badira. Mugek maila-kurbak 15-tik 60-ra bitarteko angeluekin ebakitzea hobetsiko da; horrez gain, ahal delarik, muga horiek angeluen zati ezberdinetarako alda daitezen hobetsiko da.

13.3.– Pinukideak besterik ez duen baso bat hostozabalen beste baten ondoan dagoenean, komenigarria izango da bien arteko mugan tarteko alde bat ezartzea, non espezieen dentsitatea txikiagoa izango baita eta jatorrizko landaretzaren zati bat gordeko baita. Horrela, birbasotutako aldetik besterako iragaite leunagoa lortuko da. Tarteko aldearen zabalera aldakorra izango da eta, gutxi gora-behera, zuhaitz helduen altuera halako 1,5 izango da.

13.4.– Bakartutako birbasoketa txikiak ekiditea, birbasoketa horiek ingurukoak ez diren beste ezpezie batzuekin egiten direnean batipat.

13.5.– Hostozabalen basoak gorde eta bultzatzea, beren egonkortasuna eta koloreen kontrastea direla eta, paisaiari ematen dizkioten kalitate-ezaugarriengatik.

13.6.– Errepideen inguruan birbasoketaren ertza tarteka etetea, eite naturalagoa sortzeko eta lerro zuzenen kontrastea gutxitzeko. Gertatzen diren gune irekietan, komenigarria izango da berezko landaretzaren garapena sustatzea, aniztasun itxura emateko. Beste aukera bat birbasoketen barruan argiuneak tartekatzea izan daiteke, errepideetatik ikus daitezkeen eran; argiuneotan, gomendagarria da bertoko espezieen birsorketa laguntzea.

C. Arauak.

1.– Debekaturik egongo da edozein zuhaitz ebakitzea parkearen kudeaketaz arduratuko den organoaren baimenik gabe.

2.– Gehienbat bertoko espezieek basoturiko mendien aprobetxamenduan, parkearen kudeaketarako organo arduradunak muga egokiak jarriko ditu, eta debekatu ere debekatu ahal izango du aprobetxamendu hori, Lurralde bietan indarrean dauden arauak kontutan hartuta.

2.1.– Mendi hauek kudeaketarako plan teknikoen menpean jarri ahal izango dira, zeinen helburu nagusia basoen biziraupena baita, eta parkearen kudeaketarako organo arduradunak horretarako derrigorra ezarri ahal izango du. Plan horiei dagokienez, beharrezkoa izango da parkearen kudeaketarako organo arduradunaren onespena.

2.2.– Salbuespenetan baino ez da erabateko ebaketarik baimenduko eta, kasu horietan, bi urteko epean eta lehen zeuden espezieekin mendia birbasotzeko konpromezua hartuko du jabeak; eragozpen teknikorik egonez

13.– Se fomentarán los tratamientos paisajísticos en las explotaciones forestales.

13.1.– Evitar las formas demasiado geométricas en los límites de las zonas a cortar o repoblar, huyendo de las líneas rectas en la medida de lo posible. Debe tenderse a favorecer la discontinuidad de las líneas, apoyándose en la trama del paisaje y teniendo en cuenta la configuración del terreno.

13.2.– Se desaconsejan los límites perpendiculares o paralelos a las curvas de nivel, sobre todo si se extienden en una gran longitud. Es preferible que los límites corten las curvas de nivel con ángulos comprendidos entre 15 y 60 y varíen, cuando sea posible, para las diferentes porciones de los mismos.

13.3.– Cuando una masa pura de coníferas se encuentre contígua a otra de frondosas, convendrá establecer, en el límite entre ambas, una zona de transición en la que la densidad de las especies introducidas sea menor y se conserve parte de la vegetación original. Con ello se consigue una transición más suave entre la zona repoblada y la que no lo está. La anchura de la zona de transición será variable y oscilará en torno a 1,5 veces la altura de los árboles adultos.

13.4.– Evitar las repoblaciones aisladas de pequeño tamaño, especialmente, cuando éstas se realicen con especies diferentes de las existentes en el entorno.

13.5.– Mantener y potenciar las masas arboladas de frondosas por los rasgos de calidad que aportan al paisaje debido a su estacionalidad y contraste cromático.

13.6.– En los alrededores de las carreteras interrumpir de vez en cuando el borde de repoblación, para producir una forma más natural y reducir el contraste de las líneas rectas. En los espacios abiertos resultantes conviene fomentar el desarrollo de la vegetación natural, para dar un aspecto de variedad. Otra alternativa consiste en dejar claros dentro de las repoblaciones cada ciertos intervalos, que sean divisables desde las carreteras y en los que es muy recomendable facilitar la regeneración de las especies autóctonas.

C. Normas.

1.– Se prohibe la corta de cualquier árbol sin autorización expresa del Organo Responsable de la Gestión del Parque.

2.– En el aprovechamiento de los montes poblados predominantemente por especies autóctonas, el Organo Responsable de la Gestión del Parque pondrá las limitaciones oportunas, pudiendo llegar a su prohibición, teniendo en cuenta la normativa vigente en ambos Territorios.

2.1.– Estos montes podrán ser sometidos a planes técnicos de gestión, cuyo fin esencial es la persistencia de las masas, pudiendo el Organo Responsable de la Gestión del Parque obligar a ello. Estos planes deberán ser aprobados por el Organo Responsable de la Gestión del Parque.

2.2.– Sólo se autorizarán cortas a hecho en casos excepcionales, y en ellos se obliga al propietario a repoblar el monte en un plazo de dos años con las especies que existieran con anterioridad, pudiéndose emplear, en

gero, landare-sail bereko beste espezie batzuk erabili ahal izango dira.

2.3.– Salbuespenetan baino ez da erabilera-aldaketarik baimenduko.

3.– Erabateko ebaketetarako, 5 ha-tik gorako azalerakoak direnean, beharrezkoa izango da kudeaketarako organo arduradunaren baimena, sustatzaileak ebaketaren ingurugiroko eragina bidezkotu ondoren.

4.– Parkearen kudeaketarako organo arduradunak ebaketa eta erauzketarako metodoak eta garaia mugatu ahal izango ditu. Ingurugiroan eragin handia duten aprobetxamendurik sumatuz gero, parkearen kudeaketarako organo arduradunak aprobetxamendua geldiarazi ahal izango du, aprobetxamendu hori parkearen helburuekin bat datorren eran egin arte.

5.– Edozein eratako baso-aprobetxamenduak lurrean, ubideetan, azpiegitura edo bideetan eragindako kalteak, aprobetxamenduaren burutzaileak ongitu beharko ditu 6 hilabetetik gorakoa ez den epean, aprobetxamenduaren amaieratik zenbatzen hasita. Parkearen kudeaketarako organo arduradunak, aprobetxamenduaren emakidarako prozesuan, fidantza bat ezarriko du aipatutako berreskuraketaren berme gisa.

6.– Birbasoketa guztietarako, beharrezkoa izango da parkearen kudeaketarako organo arduradunaren baimena izatea; horretarako, tokiari egokitzeko irizpide teknikoei jarraituko zaie.

7.– Batez beste %50etik gorako malda duten lursailetan, landaketa berrietan, gutxienez 60 urteko txandak dituzten espezieak erabili beharko dira.

8.– Birbasoketak burutzeko, lurra prestatzeko edo garbiketak egiteko makineriaren erabilera araututa geratuko da. Horretarako, ondoko arau hauei jarraituko zaie:

8.1.– %50etik gorako maldetan ezin izango da inolako makina autopropultsaturik erabili.

8.2.– %30etik %50era bitarteko maldetan, zuloak, belar-sastraken garbiketa eta saraketak egiteko erabili ahal izango da makineria.

8.3.– %30etik beherako maldetan baimenduta dago makinak erabiltzea, baina ez da baimenduko lurrean eta paisaian eragina duen baso-lanik egitea, hala nola golde-hegalaz egindako zorupeberriketa, mailakaketa edo ildokaketa.

8.4.– Esku-makinak edozein maldatan erabili ahal izango dira.

8.5.– %50etik beherako maldetan, eskuz egindako lanak sarituko dira.

9.– Debekaturik egongo da birsorketa prozesuan dauden lurretan abereak sartzea.

10.– Debekaturik egongo da suaren erabilera estentsiboa. Hondakinak pilatan metatu ondoren eta organo eskudunaren beren beregiko baimena eduki ondoren bakarrik erabili ahal izango da sua, eta egun berean, hain zuzen. Nahitaezkoa izango da suteen kontrako

caso de dificultades técnicas, otras especies arbóreas del cortejo florístico.

2.3.– Sólo excepcionalmente se autorizará el cambio de uso.

3.– Las cortas a hecho cuya superficie sea superior a 5 ha continuas requerirán autorización especial del Organo Responsable de la Gestión, previa justificación por parte del promotor de la incidencia ambiental de la corta.

4.– El Organo Responsable de la Gestión del Parque podrá poner limitaciones a los métodos de corta y extracción a aplicar y época. En el caso que sean detectados aprovechamientos especialmente impactantes para el medio, el Organo Responsable de la Gestión del Parque podrá paralizar el aprovechamiento hasta que el mismo se realice por los medios adecuados a los objetivos del Parque.

5.– Los daños producidos sobre el terreno, cursos de agua, infraestructuras o caminos por cualquier tipo de aprovechamiento forestal deberán ser restaurados por el ejecutante del aprovechamiento en un plazo no superior a 6 meses a partir del final del aprovechamiento. El Organo Responsable de la Gestión del Parque impondrá, en el procedimiento de concesión del aprovechamiento, una fianza en concepto de garantía de la citada recuperación.

6.– Toda repoblación deberá contar con la autorización por parte del Organo Responsable de la Gestión del Parque, siguiendo para ello criterios técnicos de adecuación al lugar.

7.– En parcelas con pendientes medias superiores al 50% se deberá emplear, en nuevas plantaciones, especies con turnos mínimos de 60 años.

8.– Queda regulado el empleo de maquinaria para realizar repoblaciones forestales, preparación del terreno o limpiezas. Para ello se seguirán las siguientes normas:

8.1.– En pendientes mayores del 50% no podrá utilizarse clase alguna de maquinaria autopropulsada.

8.2.– En pendientes comprendidas entre el 30 y el 50% podrá utilizarse maquinaria para realizar hoyos, desbroces y rozas al aire.

